## PASAIAN

Gaurko egitarauari begira hasi eta ikus daitekeen ekintzarik garrantzitsuena, 'Iñude eta artzainena' da. Dena den, bihar jaiei bukaera emateko, haurren eguna ospatuko da. Haurrek ekitaldi ugaritan parte hartzeko aukera izango dute goiz partean, arratsaldean berriz, danborradan ateratzeko prest izango dira, herri bazkari baten ostean.



**Bihar, umeen egunari hasiera ona emateko, goizeko 10etan buruhandiak izango dira.** IGOR KOTX

# Haurrak jaietan eta jolasean

AMAIA ZEBERIO / **PASAIA**

Jokorik gabe, haurrek nekez esan dezakete herriko jaietan daudenik. Jokoa jokoaren atzetik egin eta buruhandien aurretik korrika ibiltzea da haurrarentzat jairik ederrena. Ikastolak eta herriko erakundeek antolatzen dituzten danborrada, dantza, eta lehiaketetan parte hartzeak ere, halako atsegina sortzen die umeei. Hau dena kontuan hartuta, jaien antolatzaileek, ahalegin guztiak egin dituzte San Pedroko haurrek, egun guztiak ekintzaz beteta eduki ditzaten.

Dena den, gaztetxoen egun berezia, uztaileko lehen egunean —bihar— izango da. Goizean goizetik, umoretsu eta alai hasteko, 9etan porrusalda txarangaren doinuak izango dira kalean. Buruhandiak ere beren agertaldia egingo dute: hauen helburua, umeak ondo pasatzea bal-din bada ere, ez dute beti beren nahia lortzen. Haur batzuk korrikaldiak egiten dituzten bitartean, beste batzuk, lasaiago sentitzen dira etxean, buruhandiok ahalik eta ezkutatu arte.

> Eguerdiko ordubatetan, Salvio eta Dorrea auzokoen arteko haurren futbol partidua jokatuko da. Kirol ekitaldi honen ondoren, indarrak berreskuratzeko bazkari eder bat egingo dute ●

'Iñude eta artzainen' ekitaldian eta danborradan parte hartzea izaten da umeen jaietako beste eginkizun bat. Lehenengo aipaturiko emanaldi horretan egiten duten dantza, San Pedroko Lamia dantza taldeak erakusten die. Danborradan berriz, danbor doinuei laguntzen, Tirri-Tarra fanfarrearen musika izango dute.

Eguerdiko ordubatetan, Salvio eta Dorrea auzoetako haurren futbol partidua jokatuko da. Honen ondoren, indarrak berreskuratzeko zer hoberik, bazkari eder bat baino. Arratsalde partean berriz, jolasak eta sokamuturra izango dira. Bestalde, egunean zehar, ohe elastikoak eta balea Dorrean izangko dira, nahi duten guztiek jolas dezaten.

### Gaur

☞**07.00etan** sokamuturra.
☞**09.00etan** diana dultzaineroekin.
☞**10.30etan** umeentzako marrazki lehiaketa.
☞**11.00etan** 'Iñude eta artzainak'.
☞**17.30etan** igeriketa froga eta betelen estropada.
☞**23.30etan** Izadi taldearekin dantzaldia.
☞**05.00etan** txokolate jana Piña Kurdin elkartean.

## 'Iñude eta artzainak' berpizten ari dira

'Iñude eta artzainak' izenaren azpian, antzinako tradizio bat ezkutatzen da. Urte asko dira, Pasaiako kaleetan desfile moduan eta dantza egiten, herri guztia ordezkatzen zuen talde handia ateratzen zela; multzo honek, herritarra ordezkatzeaz gain, garaiko lanbide desberdinak agertzen zituen.

Jendearen aurrera egiten zuten ikuskizun hau, kale guztietatik egiten zen, bertako biztanlegoak hobeto ikus zezan. Ekintza honi amaiera emateko, bertan parte hartzen zuten herriko langile guztiek, plazan dantza bat egiten zuten.

Damak, pasteleroak, medikua, apaiza, alkatea eta hainbat lanbidetako jendek hartzen du parte emanaldi honetan. Urtean egun batez, Pasaiako herritarrak bere burua, beste herriko jende batek ordezkatua ikusten zuen. Urteak pasa ahala ordea, ohitura hau galtzen joan zen erabat desagertu arte.

Orain dela hiru bat urte, jaien antolatzaileek, galduta zegoen tradizio hori berreskuratzea erabaki zuten. Lamia dantza taldea, musika banda eta herriko zenbait koadrila elkartu ziren eta jende askoren partaidetza lortu zuten ekintza hau berrantolatzeko. Talde honek berpiztu zuen ohitura eta lehen aldiz kaleratu zenean, arrakasta handia lortu zuen. Ondorioz, urtetik urtera, jendearen partaidetza handituz joan da. Desfile honetan, herriko pertsonai hauez gain, musika bandako kideak eta danborreroak ere kaleratzen dira, denetara ehun pertsona baino gehiagok parte hartuz. Gaur egun, haurrek ere egiten dute.

Gaur goizeko 11etan, helduen ekitaldia izango da eta bihar, haurren eguna dela kontutan hartuz, beraiek izango dira herriko jaun eta jabeak.

**TIRRI - TARRA Fanfarrea**
Sanpedrotar guztioi ondo pasa, gutxi gastau eta bueltak amari.

KOFRADIA TABERNA
Zaharren Bilkura
San Pedro kalea, 14 Tel.: 391150

PAXAY TABERNA
Ondo Pasa San Pedro Jaiak
Herriko plaza, 4 Tfnoa.: 399032
PASAI SAN PEDRO

J.F. ELUSTONDO ELEKTRIZITATEA
Ondo pasa Sanpedrotarrak preso eta errefuxiatuak kontuan izanik
AUPA SAN PEDRO

MIRENTXU JANARI DENDA
Marques de Seoane plaza, Tfnoa.: 390291
P. San Pedro

ANTXETA ELKARTEA
Jaiak bai borroka ere bai
EZ GAUDE DENOK
PASAI SAN PEDRO

BOTERO TABERNA
Jai zoriontsuak opa dizkizue
PASAI SAN PEDRO

NIKO Janaridenda
Sanpedrotan guztiei jai alaitsuak
San Pedro kalea, 11 Tfnoa.: 40 11 09
SAN PEDRO

EUROCOLOR PINTUREN BANATZAILE BAKARRA
ZURUTUZA C.B. BILTEGIAK
EUROCOLOR
Mateo Errota 3-6 lokala 27 Pol. Tlfn.: 47.02.71
MARTUTENE DONOSTIA

TALLERES TORREA
Karrozeria eta Mekanika
Euskadi Etorbidea, 61 - 2.
(Sarrera Ricardo Arrillaga)
Telefonoa: 39 - 13 - 90
TRINTXERPE

M. CARMEN ILEAPAINDEGIA
Zamatete poligonoa, 4 behea P. San Pedro